## HERNANI



Rekondo prefirió conculcar la legalidad y hacer oídos sordos a la demanda de aplazar el pleno. J.M.M.

# Otra condena contra Rekondo

■ El TSJPV declara nulo un pleno que el bloque de gobierno se negó a aplazar. ■ Dos concejales de HB no asistieron al no ser convocados.

El Tribunal Superior de Justicia del País Vasco ha estimado el recurso contencioso administrativo presentado por HB contra la decisión de Rekondo de celebrar un pleno para el que no habían sido convocados todos los concejales, como establece la ley. Se trata de un nuevo fallo condenatorio para Rekondo que ya ha conocido, al menos, otra sentencia del mismo signo por no convocar plenos ordinarios.

Jose Mari MARTINEZ

El tribunal declara en su fallo que el acuerdo de celebrar la sesión plenaria del 29 de setiembre del 97, pese a la ausencia forzada de dos corporativos de HB, «vulnera el derecho a participar en los asuntos públicos». Por esa razón proclama «nulo de pleno derecho» el conjunto de aquella sesión e impone las costas del proceso judicial al Ayuntamiento.

Con esta última medida todos los hernaniarras pagaremos por una decisión adoptada por Rekondo a pesar de las reiteradas peticiones de HB e IU para que aplazase el pleno hasta que se cumpliese las condiciones que establece la legalidad vigente.

En aquella ocasión el mandatario de EA quiso contar con la complicidad de sus socios del cuatripartito a quienes consultó. No tuvo problemas para lograr su respaldo. Todos los portavoces de los grupos encabezados por Urbistondo (PP), el más rotundo, se opusieron a la petición de aplazamiento. Peñacoba (PSOE) y Lasarte (PNV) se limitaron a manifestar su coincidencia plena con el representante conservador.

### Convocatoria ilegal

Dos de los concejales de Herri Batasuna no recibieron la citación por lo que no tuvieron conocimiento de la celebración de la sesión y por tanto no acudieron. La irregular convocatoria pudo resolverse con un simple aplazamiemto, como solicitaron tanto HB como IU, pero el cuatripartito se opuso.

Pese a que el recurso interpuesto por HB ante los tribunales no iba contra ninguno de los acuerdos adoptados sobre temas que figuraban en el orden del día, sino contra la decisión de no aplazar la sesión, uno de los supuestamente afectados, Inmobiliaria Adarra, se personó como coadyudante del Ayuntamiento solicitando la desestimación del recurso.

Esta misma inmobiliaria se encuentra en medio de otro conflicto pendiente de sentencia. Se trata del recurso interpuesto por Herri Batasuna contra la decisión del bloque gobernante de cambiar el destino de una parcela de la zona de Marieluts, reservada a viviendas de VPO, según el ordenamiento urbanístico. La parcela, en copropiedad del Ayuntamiento (alrededor del 85%) y de la inmobiliaria, fue vendida de forma irregular por el bloque de gobierno y su destino final ha sido para viviendas a la venta en el mercado libre.

## ZARAUTZ

# Iñigo Ameztoi gaztea kalean

Gari BERASALUZE

Iñigo Ameztoi intsumitua atzo arratsaldean aske geratu zen epailearen aurrean deklaratu ondoren. Donostiako Probintzi Entzutegiko Lehenengo Sekzioko epaimahaiak, Jose Luis Barragan buru zela, kartzelaratu egin zuen astearte eguerdian Iñigo Ameztoi intsumitu eta EHEkide zarauztarra. Mikel Elorza abokatu zarauztarrak, Ameztoiren nahiari jarraiki, epaile euskaldun bat izan artean epaiketa suspentsioan uztea eskatu zuen eta, Barragan epaileak, erabat haserre, defentsaren kontra ekin eta akusatua espetxeratu egin zuen.

Iñigo Ameztoik intsumitu izateagatik lehenago ere epaiketa bat izan zuen, baina ez zen epaitegira azaldu. Herenegun Ertzaintzak etxe atarian atxilotu zuen, goizeko lehen orduan, Iñigo lanerako atera zenean. Gero, goizean, Donostiara eraman zuten gazte zarauztarra, Entzutegian epaiketa egin ziezaioten. Bertan Iñigoren abokatua, Mikel Elorza, iritsi zain egon ziren.

Elorza iritsi zenean, bere bezeroaren nahiari jarraiki euskarazko epaiketa eskatu zuen. Elorzak adierazi digunez, «Iñigorekin hitz eginda genuen bezala, epaiketa berme osoz egin zedin epaimahai euskalduna eskatu genuen, eta hori bermatu artean epaiketa suspentsioan uztea eskatu genion epaileari».

Eskaera horri ezetza eman zion, ordea, Jose Luis Barraganek, eta epaiketa itzulpen zerbitzuaz egiteko agindu zuen. Egoera horri uko egin zion Mikel Elorza abokatuak eta giroa berotu egin zen epaitegian.

Barraganek abokatuari «jolastu nahi baduzue jolastuko dugu», «zuk epaiketa amaitu nahi ez duzunez, akusatua kartzelaratu egingo dugu» eta antzekoak esanez Iñigo Ameztoi kartzelaratzeko agindua eman zuen. Elorza abokatuak adierazi zuenez, «hau izugarrizko astakeria da. Orain arte epaile berak izan ditu antzeko kasuak, eta akusatua aske geratu da beti, epaiketa berriaren zain». Oraingoan, ordea, defentsarekin izandako ika-mikaz baliatuz Iñigo Ameztoi zarauztarra Martuteneko espetxera bidali du Jose Luis Barraganek.

### Martutenen

Gazte zarauztarra askatu baino ordu batzuk lehenago Zarauzko Batzar Antimilitaristak eta Zarauzko Euskal Herrian Euskarazek salatu egin zuten Ameztoirekin gertatua. Bi talde hauek,



Iñigo Ameztoi. EGIN

aste honetan bertan, larunbatean zehazki, Zarautzen egingo den prentsaurrekoan intsumituen eta euskararen aurkako erasoak salatuko dituzte.

Euskal Herrian Euskaraz taldeak dagoeneko plazaratu du bere iritzia. «Iñigo Ameztoi kartzelaratzea euskaldunon aurka zabaltzen ari den errepresio bortitzaren beste adierazle bat besterik ez da. Euskaldunon hizkuntz eskubideak aldarrikatzeak matxino bihurtzen gaitu gure herrian eta, euskararen alde egiteak, Iñigoren kasuan bezala, susmagarri eta kriminal egiten» adierazi du aipatu taldeak.

EHEk eta Zarauzko Batzar Antimilitarista taldeetako ordezkari bana eta Ameztoiren senide bat Imanol Murua alkatearekin bildu ziren atzo eguerdian. Bertan, batetik Iñigoren egoerari irtenbidea bilatu eta epaiketa lehenbailehen egin diezaioten egin beharreko gestioak egin zitzan eskatu zioten alkateari.

### Udalari eskaera

Bestetik. «Zarauzko Udalak udal intsumitu izatea erabaki zuenez, eta udalerri euskalduna ere badenez, intsumisioaren eta euskararen alde egiteagatik herritar bat espetxean dagoenez, Zarauzko Udalak ere Udal bezala gertatua sala dezan» eskatu zioten alkateari, eta larunbatean emango den prentsaurrekora, berriz, herriko hainbat talde azalduko diren bezala, bera ere ager dadin.

Gestioei dagokienez, atzo goizean hainbat dei egin zituen batera eta bestera alkateak, eta Barragan epailearekin hitz egiten ere saiatu zen behin baino gehiagotan.

## DONOSTIA

**Ramon Uriberen hitzaldia**
19.45ean hasiko da Donosti-Zahar eta Erdiko Alkartetxean Ramon Uribek emango duen hitzaldia. San Martin, Bretxa eta hondartzak bezalako gaiei buruz ariko da EAko zinegotzia.

**Aerobic y gimnasia de mantenimiento**
El Patronato Municipal de Deportes comunica que entre el 29 de junio y el 25 de setiembre tendrán lugar los cursos de aerobic y gimnasia de mantenimiento en los polideportivos municipales. Los interesados han de pasar por las oficinas del Patronato (943.48.18.81) de nueve de la mañana a dos de la tarde.

## ASTIGARRAGA

**Anari abeslariaren kontzertua**
AEKkoen Aste Kulturalarekin jarraituz, gaur arratsaldeko 8etan Anari abeslari azkoitiarrak kontzertua eskainiko du Gizarte-Kultur Etxean.

## HERNANI

**San Joan erronda**
Gaur arratsaldeko 8etan Biteri Kultur Etxean egingo den San Joan errondaren entseiuan parte hartzera dei egin du Hernaniko Ohitura Zaharrak Abesbatzak. Bertan San Joan bezperan abestuko diren kantuak entseiatuko dituzte.

## ZUMAIA

**Emilio Lopez Adanen hitzaldia**
Arratsaldeko 7.30ean hasiko da Erribera kaleko Oxford aretoan Emilio Lopez Adan «Beltza»-k eskainiko duen hitzaldia. "Euskal nazioa aniztasunaren eta batasunaren artean" gaiari buruz hitz egingo du.

**Hamargarren argazki lehiaketa**
Zumaiako hamargarren argazki lehiaketako oinarriak dagoeneko kalean daude. Bi ataletarako, txuri-beltzeko argazkiak eta koloretako diapositibak, epea bera da, ekainaren 26an itxiko dena. Informazio gehiagorako 943.86.10.56 telefono zenbakira deitu behar da.

**Nazioarteko Musika Jaialdia**
Dagoeneko zabalik dago abuztuan izango diren kurtsoetan izena emateko epea. Informazioa: 943.86.11.83.

## AZPEITIA

**Gazte Ekimenekoen proiekzioa**
Arratsaldeko 8.30ean hasiko da Enparan Dorretxean "En el nombre del hijo" filmaren emanaldia, Gazte Ekimenak antolatuta.

## EUSKALTEGIAK
### Udako ikastaro eta egonaldi bereziak

Altza, Monpas, Ortzadar eta Rikardo Arregi euskaltegiek ikastaroak antolatu dituzte uztail, abuztu eta irailerako. Horrez gain, Saran barnetegia antolatuko dute eta Gazteluko aterpetxean ere egonaldiak. Interesatuek Donostiako 943-40 03 16, 943-27 27 11, 943-46 46 55 eta Oreretako 943-52 66 57 telefonoetara dei dezakete.

## UDALEKUAK
### Euskal Begirale Eskolaren eskaintza udarako

EBEk udaleku irekiak antolatu ditu 3 eta 11 urte bitarteko umeei zuzenduta. Bestalde, Orion egonaldiak egingo dituzte 8 eta 14 urte bitartekoekin. Orioko kanpamendu honetan arrantza eta baserri inguruneko ekintzez gain, kirola eta jolasa bultzatu nahi dira. Parte hartu nahi dutenek 943-287488 telefonora hots egin beharko dute.